

## ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

### Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

#### Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

4.923

**670/2006 ERABAKIA** uztailaren 27ko Diputatuen Kontseiluaren bidez, Arraia-Maetzuko Planeamenduko Ordezko Arauen Xedapen Aldaketaren espediente, Maetzun gizarte eta kulturako ekipamendu komunitarioaren sistema orokorra sortzeari buruzkoa, behin betiko onartu zen.

#### AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2006ko urtarrilaren 31n Arraia-Maetzuko Udalak planeamenduaren ordezko arauen aipatutako xedapen aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espediente hila bidez jendaurrean jartzea ere. Azken horretarako iragarki bana argitaratu zituen 2006ko otsailaren 10eko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN (17 zenbakia), 2006ko otsailaren 17ko "El Diario de Noticias de Álava" egunkarian eta udaletxeko iragarki taulan.

Bigarrena.- Espediente jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2006ko apirilaren 4ko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen, eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espediente horri 2006ko apirilaren 21ean eman zioten sarrera foru aldundian.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Batzordeak, ekainaren 12ko 5/2006 bilkuran, espedientearen txostena egin zuen martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuaren eranskinaren a) idatz-zatiko hirugarren puntuan xedatutakoari jarraituz. Dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek hirigintza arloko zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren esku uzteari buruzkoa da.

#### OINARRIAK

Lehenengoa.- Espediente Maetzuko SUR-3 eremuan dagoen 300 m<sup>2</sup>ko lursail bat Gizarte eta Kulturako Ekipamendu Komunitarioaren Sistema Orokorr gisa sailkatzeko eta inguruko bideak aldatzeko eta zentzuzkoagoak egiteko abiarazi da.

Bi aldaketan ondorioz, Espazio Libreen Sistema Orokorrari dagozkion bi azalera kendu egin beharko dira. Galera hori orekatzeko, ingurune horretan Sistema Orokorreko beste espazio libre bat sortzea proposatzen da. Hori dela eta, erabilerari horrek gaur egun dituen 1.630 m<sup>2</sup> izan ordez, 2.614 m<sup>2</sup> izango ditu.

Bigarrena.- Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak adierazi du aldaketa eremuan Bide Berde (Vasco-Navarro burdinbide zaharra) baten zatia dagoela. Oinezkoen bide moduan jasota eta babestuta badago ere, bi neurri hartzea proposatzen da: a) ibilgailuen bidearen albotik doan iparraldeko tartean babes osagai bat jartzea eta b) bidearen eta ondoko eraikinen etorkizuneko hesien artean 50 cm-ko zerrenda berdea aurreikustea.

Horri dagokionez, kalifikazio xehatuari eragiten dioten gaiak izanik udalaren eskumenekoak badira ere, egindako proposamenak erraz konpon daitezke. Argi dago babes osagaia jartzeak ez duela arazorik sortzen eta bigarren konponbidea korapilatsuagoa izan badaiteke ere, hasierako agiririk eta eraikuntza proiektuetatik konpondua geratu da, udalaren erabakia izan baita Bide Berdearen eta bizitegiarako partzelen banaketa egiteko hesiak eraikitzen ez uztea; beraz, jabari publiko eta pribatuaren arteko banaketa zoladuraren eta lorategien bidez bakarrik egingo da.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoaren Antolamendurako Batzordeak, 5/2006 bilkuran, espedientearen eta espazio libreen erabilerari aldatzearen aldeko txostena egin zuen.

Hori dela eta, espedienteak espazio libreen tokiko sistemaren aldaketa proposatzen duenez, ondokoetan zehaztutako moduan izapidetu beharko da: 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuaren 50. artikuluan eta Eusko Jaurlaritzako ekainaren 5eko

### Disposiciones y Resoluciones Administrativas

#### Acuerdos del Consejo de Diputados

4.923

**ACUERDO 670/2006, del Consejo de Diputados de 27 de julio, que aprueba definitivamente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Arraia-Maetzu, referente a la creación del sistema general de equipamiento comunitario socio-cultural de Maestu.**

#### ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 31 de enero de 2006, el Ayuntamiento de Arraia-Maetzu acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 17, de 10 de febrero de 2006, en el Periódico "El Diario de Noticias de Álava" de 17 de febrero de 2006 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 4 de abril de 2006, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava, para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 21 de abril de 2006.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 5/2006, de fecha de 12 de junio.

#### FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente se ha formulado con la finalidad de calificar un terreno, de 300 m<sup>2</sup> y sito en la zona SUR-3 de Maestu, como Sistema General de Equipamiento Comunitario Socio-Cultural y modificar la vialidad adyacente, para hacerla más racional.

Ambos cambios conllevan la supresión de dos superficies pertenecientes al Sistema General de Espacios Libres. Para compensar esa pérdida se propone, la creación en el entorno, de un nuevo espacio libre de Sistema General. De esta manera, de los actuales 1.630 m<sup>2</sup>, se pasará a 2.614 m<sup>2</sup> de aquél uso.

Segundo.- El informe emitido por el Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad manifiesta que en el ámbito de la modificación se localiza un tramo de la Vía Verde (antiguo trazado del ferrocarril Vasco-Navarro). Si bien es cierto que está recogida y respetada como vial peatonal, aquél sugiere que se adopten dos medidas: a) el establecimiento de un elemento de protección entre el tramo Norte del camino que discurre adyacente a la vía de tráfico rodado, y b) la previsión de una franja verde de 50 cms entre el camino y los futuros vallados de las edificaciones colindantes.

A este respecto, y si bien al afectar a cuestiones concernientes a la calificación pormenorizada pertenecen al campo de la oportunidad municipal, la solución de las propuestas planteadas se puede solventar con facilidad. Es obvio que la instalación del elemento de protección no ofrece ningún problema; la segunda cuestión podría ser más complicada, pero ha quedado resuelta, desde el propio documento y los proyectos de edificación, pues la intención municipal es la de no autorizar la construcción de vallados de separación entre la Vía Verde y las parcelas residenciales, de tal modo que la distinción entre el dominio público y el privado se efectuará por el mero tratamiento de su pavimentación y/o su jardinería.

Tercero.- El expediente y, por tanto, el cambio de uso de los espacios libres ha sido informado favorablemente por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco 5/2006.

En ese sentido, el expediente, al proponer una alteración del sistema local de espacios libres, debe someterse al trámite establecido en el artículo 50 del Texto Refundido de la Ley del Suelo del 76 y el Artículo Único, punto 3, del Decreto 133/1996, de 5 de junio,

133/1996 Dekretuaren artikulua bakarraren 3. puntuan. Hortaz, espediente behin betiko onestea Diputatuen Kontseiluari dagokio.

Ondorioz, Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua ez dagoelako haren ordez Sustapen Ekonomiko eta Berrikuntzaren Kudeaketa Saileko diputatua, diputatu nagusiaren uztailaren 15eko 141/2003 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat eta gaur bertan diputatuen kontseiluak eztabaidatu ondoren, honakoa

#### ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Arraia-Maetzuko Planeamenduko Ordezko Arauen Xedapen Aldaketaren espediente, Maetzun gizarte eta kulturako ekipamendu komunitarioaren sistema orokorra sortzeari buruzkoa, behin betiko onartzea. Udalerri horretako udalak sustatu eta izapidetu du.

Bigarrena.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, norbanakoek horren aurka ondokoetako edozein errekurtso jarri ahal izango dute, baita interesdunek euren interesen onerako egoki deritzoten beste edozein neurri abiarazi ere:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), Foru Agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko uztailaren 27a.- Diputatu nagusiordea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.- E.D. Sustapen Ekonomiko eta Berrikuntzaren Kudeaketa Saileko foru diputatua, CARLOS SAMANIEGO PÉREZ.

#### Foru Aginduak

### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

4.978

**659/2006 FORU AGINDUA, 2006ko uztailaren 28koa. Honen bidez Ingurumen Eraginaren Deklarazioa egiten zaio Erribera Beitiko "Arasur Plataforma Logistikoaren Plan Partziala, 2. fasea" proiektuari. Aldeko deklarazioa egiten da eta ingurumen baldintza lotesle batzuk ezartzen dira.**

Arabako Foru Aldundiko Sustapen Ekonomiko eta Berrikuntzaren Kudeaketa Sailak "Arasur Plataforma Logistikoaren Plan Partziala, 2. fasea" izeneko proiektua gauzatu nahi du Erribera Beitiko udal mugartearen.

Proiektu hori Ingurumen Eraginaren Banakako Ebaluazio prozeduraren menpe dago, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/86 Legegintzako Errege Dekretua aldatu duen maiatzaren 8ko 6/2001 Legean ezarritakoaren arabera. Izan ere, industrialde handi bat gehituko zaio lehendik dagoen beste bati, Europako "Natura 2000" Sare Ekologikoan sartuta dauden Batasunaren Intereseko Leku batzuen inguruetan (Baias ibaiko BIL, Zadorra ibaiko BIL eta Ebro ibaiko BIL).

Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterlana (IEA) jendaurrean jarri zen hogeita hamar egun baliodunez, indarreko legeriak, bereziki, Hirigintza eta Ingurumen Sailaren maiatzaren 26ko 458/2006 Foru Aginduak agintzen duen bezalaxe (2006ko ekainaren 2an argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN, 61 zenbakikoan); jendaurreko epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Ikusi da foru aldundi honen Ingurumen Zuzendaritzaren aldeko txostena.

Bestalde, foru aldundiak eskumena du Ingurumen Eraginaren Deklarazioa egiteko, horrela ezartzen baitute artikulua hauek: alde batetik, ekainaren 28ko 1.302/86 Legegintzako Errege Dekretuaren 4. eta 5. artikuluek, beste batetik, irailaren 30eko 1.131/88 Legegintzako Errege Dekretuaren 4. artikulua, azaroaren 25eko 27/83 Legearen 7.b.1)

del Gobierno Vasco, lo que supone que su aprobación definitiva corresponde al Consejo de Diputados.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Promoción Económica y Gestión de la Innovación, en funciones de titular del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, por ausencia de su titular, de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral del Diputado General 141/2003, de 15 de julio, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

#### ACUERDO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Arraia-Maetzu, referente a la creación del Sistema General de Equipamiento Comunitario Socio-Cultural, promovido y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 2006.- El Teniente Diputado General, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.- P.A. El Diputado de Promoción Económica y Gestión de la Innovación, CARLOS SAMANIEGO PÉREZ.

#### Órdenes Forales

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

4.978

**ORDEN FORAL 659/2006, de 28 de julio de 2006, por la que se formula con carácter favorable la Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de "Plan Parcial 2ª Fase de la Plataforma Logística Arasur" en el término municipal de Ribera Baja, con las condiciones ambientales de carácter vinculante que se detallan en la mencionada Orden Foral.**

El Departamento de Promoción Económica y Gestión de la Innovación de la Diputación Foral de Álava tiene previsto llevar a cabo el Proyecto de "Plan Parcial 2ª Fase de la Plataforma Logística Arasur" en el Término Municipal de Ribera Baja.

El Proyecto se halla sometido al procedimiento de Evaluación Individualizada de Impacto Ambiental, según Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y Ley 6/2001, de 8 de mayo, de modificación del Real Decreto Legislativo 1302/86, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, puesto que se trata de una zona industrial de gran extensión que se une a otra existente y se sitúa en el área de influencia de los Lugares de Importancia Comunitaria, LIC del río Bayas, LIC del río Zadorra y LIC del río Ebro, incluidos en la Red Ecológica Europea "Natura 2000".

El Estudio de Impacto Ambiental (EIA) ha sido sometido a información pública por un periodo de treinta días hábiles, tal y como se establece en el marco legal vigente, conforme a lo establecido en la Orden Foral del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente número 458/2006, de 26 de mayo, publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 61 de fecha 2 de junio de 2006, no habiéndose presentado tras la finalización del periodo de exposición pública ninguna alegación al mismo.

Visto el informe favorable de la Dirección de Medio Ambiente de esta Diputación Foral.

Considerando que la Diputación Foral es competente para formular la correspondiente Declaración de Impacto Ambiental a tenor de lo dispuesto en los artículos 4 y 5 del Real Decreto Legislativo 1.302/86, de 28 de junio, y 4 del Real Decreto 1.131/88, de 30 de setiembre, en relación a lo señalado en el artículo 7.b.1) de la Ley 27/83,